

Affiche basque de la période révolutionnaire

Franciaco Errepublicoaren icenian

Pirenea Occidantaletaco Armadan eta Porgurunceco Departimenduetan aurquitcen diren Populuaren Errepresentan tec.

Uztaritzco communeco cembeit herritar onec eguin dioten denonciationiaren gainian, ceintaric agueri baita, Bayonaco hiritic atheraturican, hainitz suspitchac diren pressuna batçu bere egoitça berechi dutela Ustaritzeco herrian, hartan egoitçaric ez duten arren eta principioric galgarrienac herri hartan, banatcen dituztela.

Eçagaturican cembat important den, aurquitcen garen circosantietan pressuna suspeitchec ezditecen urrun, bere egoitçaco autoritaten atçartassunetic, eta ezditecen poulompa herribatçuetan ceinetan eçagutuac ezdirelacots errech quiago herritar onen atçartassunac ihes eguin baiteçaquete eta bana tranquiltastun publicoaren principio barrayat çaille batçu, lanyerossagoac litasquen manera batçues, arrestatcen dute:

Lehembicioric

Bayonnaco habitantac, ceinac Ustaritzco herrian memento huntan aurquitcen baitire eta Ustaritzco herrian proprietate foncierren yabe ezdirenac, obligatuacc izanen dire, presenteco arresta publicatçen denetic hogoy eta lau orenen buruyan herri hartaric atheratcias, eta bihourticia, bere ordinariocoaren lekurat.

Bigarreoric

Hogoi eta lau orenen ephiaren buruan, presenteco arresta huni obediten ezdioten guciac, hartuac izanen dire eta cerratuac, pressuna suspitcha batçu beçala bakiaraino.

Hirurgarrenécoric

Etchetaco propietarioac, ceinen etchetan aurquituco baitire presentaco arresta huni suyet içanen diren pressunac, obligatuac izanen dire, haina hequien beren etchetican camporat emaitias, gorago fixatua den ephian. Eta etchetaco naussietarican, ceinen etchetan aurquituco baitire arresta huni suyet diren cembeit pressuna hogoy eta lau orenen ephia akabatceas gueros, condemnatuac içanen dire, hirur ehun liberaco amanda baterat, ceina partitua izanen baita Ustaritzco herrico pobrien artian.

Bayonnan emana urriaren sortcian, mila saspi ehun eta lauretan-hogoy eta hamahirurian, Pranciaco Errepublica bakarra, eta ezin separatuscoaren bigarren urtian.

Signatua J. B.B. Monestier (du Puy-de-Dôme)
J^s Pinet çaharrena

(Publié par le D'LARRIEU).

